



I. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA Bizkaiko Foru Aldundia

Ekonomia Sustatzeko Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren 34/2024 FORU DEKRETUA, martxoaren 26koa. Honen bidez, Artisautza Sustatzeko programaren oinarri arautzaileak eta deialdiak onesten dira, 2024 urterako.

I

Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailaren xedea Bizkaian aberastasuna eta kalitateko enplegua sortzen laguntzea da, Bizkaiko enpresa arloan lehiakortasun iraunkorra eta nazioartekotzea sustatuz eta, aldi berean, gure lurraldearen garapen orekatua erraztuz. Ildo horretan, estrategia integral bat jarri da abian, bost ardatz estrategikotan oinarritua: Bizkaia, talentuarekiko konpromisoa; Ekintzaitza aurreratua, Bizkaiko enpresa-sare berriaren motor gisa; Industria eta zerbitzu aurreratuak, lehiakortasun jasangarrirako apustu indartsuagoa; Bizkaia orekatua eta kohesionatua; eta Bizkaia irekia eta erakargarria; hori guztia, balio erantsiko zerbitzuak modu eraginkorrean emateko konpromisotik abiatuta.

Misio horren esparruan, onartu nahi den foru-dekretuaren xedea Artisautza Sustatzeko 2024ko Programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea da, eta helburua Bizkaiko artisautza-sektorea dinamizatzeko dirulaguntzak ematea.

Ekonomia Sustatzeko Sailaren 2024-2027 aldiko Dirulaguntzen Plan Estrategikoak dirulaguntza ekintza bat aurreikusten du artisautza sustatzeko, bai enpresentzat, bai artisautza-elkarteentzat, eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorretan urtero esleitzen dira horiek gauzatzeko behar diren kredituak. Horretarako, beharrezkoa da dirulaguntzoi buruzko araudia ezartzea. Dirulaguntzen ekintza hori «Artisautza-proiektuak sustatzea» deitzen da eta «Bizkaia orekatua eta kohesionatua» izeneko helburu estrategikoa lortzen laguntzen du, eta helburu horren barruan, «Artisautza sustatzea» izeneko helburu espezifikoak.

Artisautza sustatuz, hobetu egin nahi da arlo horretaz jendeak duen iritzia, eta gure gizartearen ongizate kultural, sozial eta ekonomikoan oro har duen balioa ikusarazi.

Era berean, Bizkaiko artisautza-sektorea indartu nahi da, jarduera profesional gisa, artisau-lanen kalitatea bultzatuz eta ikuspegi berritzaileak sustatuz, trebetasun eta negozio-eredu berrien bitartez.

II

Xedapenaren xede den gaiaren gaineko eskumena Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio, hala ezarrita baitago Euskal Autonomi Erkidego Osorako Erakundearen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundearen arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 6.1. eta 7a)12. artikuluetan. Horien bidez zehazten da, beste eskumen batzuen artean, lurralde historikoetako foru-organismoek eskumen eskusiboa dutela artisautzaren arloan.

Ekonomia Sustatzeko Foru Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 17ko 207/2019 Foru Dekretuak Ekonomia Sustatzeko Foru Sailari esleitzen dio artisautza sustatzearen arloko jarduna.

III

Foru-dekretu honek betetzen ditu erregulazio onaren printzipioak, zeinak aurreikusten baitira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian



xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da); manuok bete egin dira xedapena egin eta izapidetzeko orduan, eta txosten hauek eman dira:

1. Genero-inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa.
2. Ekonomia Sustatzeko Sailaren txosten juridikoa.
3. Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena.
4. Memoria ekonomiko-administratiboa eta erregulazio onaren printzipioei buruzkoa.
5. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
6. Legezketasunari buruzko txostena.

Era berean, genero-ikuspegia jaso da foru-dekretu hau prestatzeko orduan, kontuan hartuta zer xedatzen den arau hauetan: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua eta Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretua, zeinaren bidez generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen baitira (ebaluazio hori 4/2005 Legean dago aurrez ikusita). Ildo horretan, lehen adierazi den bezala, foru-dekretu honen izapidetzean generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena sartu da.

Era berean, kontuan hartu da zer ezarrita dagoen hala maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan (haren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dira), nola Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntzetarako prozeduretan klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak sartzeko gidan (Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 27ko 16/2018 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen).

IV

Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzak salbuetsirik daude aurretik Europako Batzordeari jakinarazi behar izatetik, honako araudia dela bide 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamendua, Batzordearena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. eta 108. artikuluen ezarpenari buruzkoa.

V

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1. artikulua ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari dirulaguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko foru-dekretu bidez, aurretik zerbitzu juridikoak txostena emanda; eta Dirulaguntzen Erregelamendua onetsi zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1. artikulua aukera ematen du oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak duela haiek onesteko ahalmena.

Halaber, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikulua ezartzen du foru-diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailtako gaiei buruzko foru-dekretuen proiektuak onetsitzan. Horrela, bada, kasu honetan Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari dagokio foru-dekretuaren proiektu hau proposatzea.

Hori dela bide, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak proposatuta, eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2024ko martxoaren 26ko bileran aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu Bakarra. — Oinarri arautzaileak eta deialdiak onartzea

2024. urterako Artisautza Sustatzeko dirulaguntza programako oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira, eta honen ondoren doa haren testua.



XEDAPEN GEHIGARRIAK

Xedapen Gehigarri Bakarra.— Izaera pertsonaleko datuen babes

1. Interesdunak ematen dituen datuak foru-dekretu honetatik eratorzen diren prozedurak kudeatzeko erabiliko dira, kontuan harturik zer ezartzen den honako xedapen hauetan: 2016/679 Erregelamendua (EB), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; 95/46/EE Zuzentaraua (datuen babesari buruzko Erregelamendu orokorra) baliogabetzen duena; eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalen Babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa.

2. Datu horiek inola ere ez dira erabiliko, eta ez zaizkie hirugarren batzuei lagako, interesdunak argi eta garbi ados dagoela adierazi ezean edo goian aipaturiko araudian ezartzen diren kasuetan izan ezik.

3. Edozein bide erabiliz eskaerak egin, eta interesdunek administrazio publikoen eskuetan dauden datu pertsonalak ematen badituzte, eskaeraren hartzailea den organoak beharrezko egiaztatze-lanak egiteko aukera izango du, dituen eskumenen barruan, datuak benetakoak direla egiaztatzeko.

4. Araudi horretan xedatzen dena betetzeko, interesdunak honako eskubide hauek baliatu ahal izango ditu datuen tratamenduen arduradunaren aurrean: datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko («ahaztua izateko eskubidea»), aurkaratzeko, haien tratamendua mugatzeko eta datuok eramangarri izateko eskubideak, bai eta tratamendu automatizatuan soilik oinarrituriko erabakien xede ez izatekoa (barne harturik profilen sorrera) ere, baldin eta erabakiak eragin juridikoak badakarzkio edo, modu bertsuan, beragan eragin nabarmenik badu. Era berean, edozein momentutan errebokatu ahal izango du emandako baimena. Horrez gain, eskubidea du erreklamazioa jartzeko Datuen Babesaren Kontrol Agintaritzan. Gai honi buruzko informazio guztia Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean dago eskuragarri, datuen babesari buruzko atalean (<https://web.bizkaia.eus/eu/datuen-babesa>).

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Xedapen Iragankor Bakarra.— Aurreko urteko Artisautza Sustatzeko programa aplikatzea

Xedapen iragankor honetan adierazitako araudiaren babesean aurkeztutako eskaeren ondoriozko itzultze-prozedurak, zehapen-prozedurak, errekurtsioak, berrikuspenak eta bestelako gorabeherak apirilaren 4ko 44/2023 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera ebatziko dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

Xedapen Indargabetzaile Bakarra.— Aurreko urteko Artisautza Sustatzeko dirulaguntza-programa indargabetzea

Foru-dekretu hau indarrean jartzen denean, indargabeturik geratuko da apirilaren 4ko 44/2023 foru-dekretua, Artisautza Sustatzeko 2022ko Programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dituena; hala ere, aplikatu daiteke beraren indarraldiaren barruan sortutako egoeretan, xedapen iragankor bakarrean aurreikusitakoarekin bat.

AZKEN XEDAPENAK

Azken Xedapenetako Lehena.— Ahalmenak eskuordetzea

1. Ahalmena ematen zaio Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari, foru-dekretu honetan xedatzen dena garatu, betearazi eta aplikatzeko beharrezko xedapen guztiak eman ditzan, baita dirulaguntzen emakida ere.

2. Halaber, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari ahalmena ematen zaio, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32.4. artikuluan jasotako kasua gertatzen bada edo aurrekontu hornidura agortu edo areagotzen bada, eskabideak aurkezteko epea luzatu edo ixteko.



3. Era berean, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari ahalmena ematen zaio beste dirulaguntza-deialdi batzuk egiteko, aurrekontuko diru-hornidura amaitu ezean.

Azken Xedapenetako Bigarrena. — Indarrean jartzea

1. Foru Dekretu honen bidez onetsitako oinarri arautzaileak indarrean jarriko dira «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu ondoren. Zehazki, aldizkari horretan argitaratzen denean batera onartzen diren deialdien laburpenak.

2. Foru dekretu honen bidez onartutako deialdiek ondorioak izango dituzte Bizkaiko Aldizkari Ofizialean deialdien laburpenak argitaratzen diren egunetik aurrera.

Bilbon, 2024ko martxoaren 26an.

Ekonomia Sustatzeko foru diputatua,
AINARA BASURKO URKIRI

Ahaldun Nagusia,
ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA



ARTISAUTZA SUSTATZEKO 2024KO PROGRAMA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK ETA DEIALDIAK

AURKIBIDEA

I. titulua. — *Xedapen orokorrak.*

- oinarria. — Dirulaguntzaren xedea.
- kapitulua. — 1. arloa: *Artisautza-erakundeek beren lehiakortasuna sendotzeko gauza-tutako jarduerak.*
- oinarria. — Dirulaguntzaren onuradunak.
- oinarria. — Diruz lagundu daitekeen egitatea.
- oinarria. — Diruz lagun daitezkeen gastuak.
- oinarria. — Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua.
- kapitulua. — 2. arloa: *Toki-erakundeek eta artisautza-elkarteek bultzaturiko jarduerak.*
- oinarria. — Dirulaguntzaren onuradunak.
- oinarria. — Diruz lagundu daitekeen egitatea.
- oinarria. — Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak
- oinarria. — Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua.
- kapitulua. — *Aurrekontuko kredituak.*
- oinarria. — Aurrekontuko zuzkidura.

II. titulua. — *Araubide juridikoa.*

- oinarria. — Araubide juridikoa.
- oinarria. — Organo eskudunak eta erakunde laguntzailea.
- oinarria. — Arau-haustea eta zehapenak.
- oinarria. — Ez-betetzea eta dirulaguntza itzultzea.
- oinarria. — Dirulaguntza erakunde onuradunaren ekimenez itzultzea.

III. titulua. — *Dirulaguntzak emateko prozedura.*

- oinarria. — Dirulaguntza-eskabideak aurkezteko lekua, era eta epea eta ondorengo izapideak.
- oinarria. — Eskabidea egiteko beharrezko dokumentazioa eta interoperabilitatea.
- oinarria. — Eskabidea zuzentzea edo hobetzea.
- oinarria. — Dirulaguntza emateko prozedura.
- oinarria. — Eskabideak baloratzeko irizpideak.
- oinarria. — Ebazpena.
- oinarria. — Errekurtsoak.
- oinarria. — Dirulaguntzari uko egitea.
- oinarria. — Dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea.
- oinarria. — Emandako dirulaguntzen publizitatea.
- oinarria. — Onuradunak eman zaion dirulaguntzaren publizitatea egitea.
- oinarria. — Jakinarazpen elektronikoa.

IV. titulua. — *Gauzatzea, justifikatzea eta kontrola.*

- oinarria. — Gauzatzeko epea.
- oinarria. — Justifikazio-epea.
- oinarria. — Azpikontratazioaren baldintzak.



31. oinarria. — Dirulaguntzak justifikatzea.
32. oinarria. — Dirulaguntza ordaintzea.
33. oinarria. — Laguntzak metatzea.
34. oinarria. — Laguntzen bateragarritasuna.
35. oinarria. — Onuradunen beste betebeharrak batzuk.

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. oinarria. — *Dirulaguntzaren xedea*

1. Dirulaguntza-programa honen bidez, helburu hauek lortu nahi dira:
 - Artisautza-erakundeak eta haien produktuak sustatzea.
 - Ikuspegi berritzaileak sustatzea, trebetasun eta negozio-eredu berriak garatuz.
 - Artisautza-erakundeen sorkuntza bultzatzea.
 - Artisauen trebakuntza-maila hobetzea.
 - Enpresen elkartegintza bultzatzea.
2. Programa hau bi jardun-arloaren bitartez gauzatuko da:
 - 1. arloa: artisautza-erakundeek beren lehiakortasuna sendotzeko egindako jarduketak.
 - 2. arloa: Toki-erakundeek eta artisautza-elkarteek bultzatutako jarduketak.

I. KAPITULUA

1. ARLOA: ARTISAUTZA-ERAKUNDEEK BEREN LEHIAKORTASUNA SENDOTZEKO GAUZATUTAKO JARDUERAK

2. oinarria. — *Dirulaguntzaren onuradunak*

1. Artisautza-erakundeak izan daitezke dirulaguntzen 1. arloan adierazitako dirulaguntzen onuradunak, autonomoen erregimenean dauden pertsonak, sozietate zibilak, ondasun-erkidegoak zein merkataritza-sozietateak izan.
2. Aurreko atalean adierazitako erakundeek baldintza hauek bete beharko dituzte dirulaguntzaren onuradun izateko:
 - a) Bizkaiko Artisautzako Erakundearen Erregistroan inskribatuta egotea, (azaroaren 30eko 157/2021 Foru Dekretuak arautzen du erregistro hori) deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den unean, eta bertan sartzeko baldintza guztiak betetzea.
 - b) Egunean edukitzea zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzeari dagozkionak.
 - c) Ez egotea Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren (aurrerantzean 5/2005 Foru Araua) 12. artikuluan jasotako debeku-egoeretak batean ere.
3. Baldintza guztiak bete behar dira eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, eta emakidak eta ordainketak egiten diren unera arte mantendu.
4. Ezingo dute deialdi honetan parte hartu, ezta onuradun izan ere, honako hauek:
 - a) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan (aurrerantzean 4/2018 Foru Araua) eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikuluan (aurrerantzean 1/2023 Legegintzako Dekretua) adierazitako egoeretak batean dauden pertsona fisiko eta juridikoak, publikoak zein pribatuak.



- b) Pertsona fisikoak eta juridikoak, publikoak edo pribatuak, administrazioaren ebazpen irmo bidez zigortuak izan direnak Tratu berdintasunaren eta diskriminazio ezaren uztailaren 12ko 15/2022 Lege Integralaren IV. tituluan aurreikusitako termino eta epeetan oso larri gisa kalifikatutako arau-hausteengatik.

3. oinarria. – Diruz lagundu daitekeen egitatea

1. Honako hauek joko dira diruz laguntzeko egitatzat:
 - a) Lanabesak, tresnak eta makina txikiak eskuratzea.
 - b) Ekipamendu informatikoa eta softwarea eskuratzea.
 - c) Artisautza-lantegiak ezarri, zabaldu edo eraldatzea.
 - d) Prestakuntza ikastaroetan parte hartzea; bereziki, negozioen digitalizazioari buruzkoetan.
 - e) Sustapen-kanala eta online-salmenta ezartzea.
 - f) Sustapen komertzialeko materialak ontzea.
 - g) Azoketan parte hartzea.
 - h) Kudeaketa hobetzeko kanpoko aholkularitza, eta kontabilitate eta zerga aholkularitza.
 - i) Artisautza-lantegia alokatzea.
2. Ez da dirulaguntza jaso dezakeen egitatea izango sexua edo 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.1 artikuluan jasotako askotariko diskriminazio faktoreak direla-eta diskriminatzailea den jarduera.
3. Ez da dirulaguntza jaso dezakeen egitatea izango 15/2022 Legearen IV. tituluan arau-hauste gisa kalifikatutako praktikak erasotzen, suspertzen edo onartzen dituen jarduera edo xedea betetzea.

4. oinarria. – Diruz lagun daitezkeen gastuak

1. Diruz lagun daitezkeen gastutzat joko dira proiektu edo jardueraren izaerari eta garapen normalari erantzuten dioten eta epearen barruan (ikus 28. oinarria) egin diren beharrezko gastu hauek, betiere indarreko arautegiaren arabera behar bezala justifikatu badira:
 - a) Lanabesak, tresnak eta makina txikiak eskuratzea.

Diruz lagun daitezkeen gastutzat jo dadin, artisautza-jarduerari dakarkion balio erantsia justifikatu beharko du erakunde eskatzaileak.
 - b) Ekipamendu informatikoa eta softwarea eskuratzea.

Diruz lagun daitezkeen gastutzat jo dadin, artisautza-jarduerari dakarkion balio erantsia justifikatu beharko du erakunde eskatzaileak.

Ekipamendu informatikoaren erosketa diruz lagundu ahal izango da soilik aurrez eskatu ez bada, edo kontzeptu beragatik emandako azken dirulaguntza gutxienez 2022ko deialdiari badagokio.

Software-programak, gehien jota, urtebeteko lizentziaren prezioari proportzionalki dagokion zenbatekoan lagunduko dira. Erakundearen zenbat langile, hainbeste lizentzia onartuko dira gehienez.
 - c) Artisautza-lantegiak ezarri, zabaldu edo eraldatzea.

Artisautza-jarduerako lokala egokitze lanen gauzatze-kostua diruz lagunduko da, baldin eta hauek hobetzeko badira soilik: produktibitatea, jarduera segurtasunez gauzatzeko baliabideak, ingurumen-egoera eta energia-eragingarritasuna.

Diruz lagun daitezkeen gastutzat jo daitezten, izan beharko dute jarduera hasi aurreko komunikazioa, obrak hasi aurreko komunikazioa edo, halakorik badago, obra-lizentzia.

Esku-hartze hauek ezingo dira diruz lagundu:

– Estalki edo fatxadetako erreformak edo konponketak.



- Komunen erreformak.
- Bideozaintzako edo intrusioen kontrako segurtasuneko sistemak jartzeko lanak.
- Berokuntzako edo aire girotuko instalazioak.

Erreformak egiten badira aldi berean lantegi eta etxebizitza edo saltoki diren lokaletan, edo hauek ikastaroak emateko erabiltzen badira, lantegirako erabilitako m² kopuruari dagokion portzentajearen arabera onartuko da gastua.

Azken hiru deialdietako batean erakunde eskatzaileak kontzeptu horrengatik beragatik dirulaguntza jaso badu, lokalaren aldaketa eta/edo erreforma behar bezala arrazoitu beharko da diruz laguntzeko modukotzat hartzeko.

- d) Prestakuntza ikastaroetan parte hartzea; bereziki, negozioen digitalizazioari buruzkoetan.

Diruz lagunduko da prestakuntza-ikastaroetako matrikularen kostua.

Diruz lagun daitekeen gastutzat jo daitezten, ikastaro horiek justifika daitekeen eran eragin behar dute enpresa-jardueraren hobekuntzan.

Dirulaguntzen programa honen ondorioetarako, prestakuntza-ikastaroen kategoria honetan ez da sartzen Lanbide Heziketako ikastetxeek edo unibertsitateek emandako irakaskuntza arautua. Halaber, ez dira diruz lagunduko hizkuntzak ikasteko ikastaroak.

- e) Sustapen-kanala eta online-salmenta ezartzea.

Artisautza-jarduerari buruzko webgune bat egin eta eguneratzea, bai eta web horretan onlineko salmenta-kanal bat sartzeari ere, diruz lagunduko da.

Era berean, honako hauetan integratzeko kostuak ere sartzen dira: sare sozialak, hirugarrenen atariak edo sustapen eta komertzializazio bateratuen dharduten Interneteko plataforma elkartuak.

- f) Sustapen komertzialeko materialak ontzea.

Diruz lagunduko da euskarri fisikoa duten sustapen-materialen kostua, hala nola, eskuorriak, kartelak, etab.

Atal honetan, halaber, diruz lagundu ahal izango da merkataritza-marka bat sortzeko eta/edo erregistratzeko kostua.

- g) Azoketan parte hartzea.

Diruz lagunduko da artisautza xede nagusia duten eta gutxienez bi egun diharduten azoketan parte hartzeko zoruaren eta standaren alokairua.

Salbuespenak onartu ahal izango dira aurreko bi baldintzetariko bat betetzen ez duten azoketan, hau da, xede nagusitzat artisautza ez dutenetan edo bi egunetik beherako iraupena dutenetan, betiere argi eta garbi justifikatzen bada azoka horretan parte hartzeak eragin handia izan dezakeela artisautza-negozioan.

Artisautza-erakundeek azokan aurkeztu behar dituzte Bizkaiko Artisautzako Erakundearen Erregistroan inskribatuta dauden jarduerari dagozkion produktuak.

- h) Erakundearen kudeaketa hobetzeko kanpo aholkularitza, eta kontabilitate eta zerga aholkularitza.

Erakundearen kudeaketa hobetzeko kontratatzen den kanpo aholkularitzaren – bai barneko gaietarako, bai legearekin lotutako gaietarako– kostua diruz lagunduko da, baita kontabilitateari eta zergei buruzko aholkularitzaren kostua ere.

- i) Artisautza-lantegia alokatzea.

Eskulan jarduera burutzen den lokala alokatzeko kostua diruz lagunduko da.

Bizkaiko Artisautzako Erakundearen Erregistroan 2023an lehen aldiz inskribatutako erakundeentzat, diruz lagundu ahal izango dira artisau-lantegiaren 2023ko alokairu-errentak. 2024an inskribatuentzat, inskripzioetik aurrerako hiletan soilik.

Bizkaiko Artisautzako Erakundearen Erregistroan 2023 aurretik inskribatutako erakundearen kasuan, diruz lagundu daitekeen gastutzat joko dira 2024ko alokairuari dagozkionak, baldin eta aurten lokal berri baterako aldaketa egon bada, lehen-



goak jada ez dituelako betetzen lantegi gisa erabilia izateko behar diren baldintza teknikoak edo edukierazkoak.

Diruz lagun daitekeen gastutzat jo dadin, banaka eta beste higiezinetatik bananduta eskrituratutako ondasun bati dagokion kokapena izan beharko da, salbu eta lokal handiago baten zati baten alokairuari dagokionean, baldin eta lokal horretan gauzatzen diren jarduerak oro har artisautza-izaerakoak badira. Orobat, ezingo da etxebizitza gisa erabili.

2. Honako hauek ez dira joko diruz lagun daitekeen gastutzat:

- a) Proiektu-fasearen kostuak, ez lokala egokitzeko obrari dagozkion tasak.
- b) Bidaia, ostatu eta mantenu gastuak.
- c) Garraio-gastuak.
- d) Enbalaje-gastuak.
- e) Material suntsikor-gastuak edo kontsumigarri-gastuak.
- f) Buzoi bidezko banaketa-gastuak.
- g) Erakusleihenak apaingarri-gastuak.
- h) Altzariak eskuratzea.
- i) Argazki-kamerak eta telefonia mugikorreko gailuak eskuratzea.
- j) Leasing-a, behin iritsi ondoren haren jatorrizko urteko deialdian aurreikusitako diruz lagun daitekeen gehieneko baliora.
- k) Finantza-gastuak.
- l) Aurretiaz ezarritako kalitate-sistemak berritzeko auditoria- eta aholkularitza-gastuak.
- m) Zergak eta tasak, baita BEZa ere, salbu eta erakunde onuradunak ezin duenean berreskuratu edo konpentsatu.
- n) Eskatzailearen eta erakunde hornitzailearen artean lotura dagoen kasuetan gastuek ez dute dirulaguntzarik jasoko, salbu eta 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 27.7.d) artikuluan gastu horiek diruz lagungarritzat jotzeko baldintzak betetzen direnean. Ondorio horietarako, lotura dagoela ulertuko da Dirulaguntzen Erregelamendua onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 53.2. artikuluan ezarritako kasuetan.
- o) Dirulaguntzaren xede den jarduerarekin zalantzarik gabe identifikatu ezin diren gastuak.
- p) Deialdi bakoitzean ezarritako exekuzio-epean fakturatzen ez diren gastuak.
- q) Ezarritako justifikazio-aldia amaitu ondoren ordaindutako gastuak.
- r) Merkatuko balioa gainditzen duten gastuak.
- s) Merkataritza-eragiketetan egindako gastuak, baldin eta sektoreko araudi aplikagarrian aurreikusitako ordainketa-epeak bete gabe ordaindu badira, edo, halakorik ezean, 3/2004 Legean ezarritakoak bete gabe.

3. Ondasun inbentariagarriak, baldin eta osorik edo zati batean dirulaguntzen bidez eskuratu, eraiki, birgaitu edo hobetu badira, dirulaguntzaren xede zehatzerako erabili beharko dira, gutxienez bost urtez erregistro publiko batean inskriba daitezkeen ondasunetan, eta bi urtez gainerakoetan.

4. Dena dela, diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (aurrerantzean 9/2017 Legea) kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak gainditzen dituenean, hau da, 15.000 euro edo gehiago hornidura eta zerbitzuen kasuan, onuradunak, gutxienez, hiru hornitzaile ezberdinen eskaintzak eskatu beharko ditu zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta, diruz lagundu daitezkeen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ez bada nahikoa erakunderik halakorik hornitu edo eskaintzen duenik, edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin bada.

5. Aurkeztutako eskaintzak justifikazioan jaso beharko dira edo, hala badagokio, dirulaguntza eskaeran, eta haien artean aukeratzeko, eraginkortasun eta ekonomia iriz-



pideak hartuko dira kontuan, eta, proposamen ekonomiko onuragarriena aukeratzen ez denean, aukeraketa memoria batean justifikatu beharko da espresuki.

5. oinarria.— Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua

1. Dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko, kontuan hartuko dira behean ezartzen diren dirulaguntza-porzentajeak eta gehieneko mugak:

Gastu mota Tipo de gasto	Jarduketa / Actuación	Dirulaguntzaren %a % de subvención	Gehieneko dirulaguntza Subvención máxima (€)
Ekipamendurako gastuak Gastos destinados a equipamiento	a) Lanabesak, tresnak eta makina txikiak eskuratzea. Adquisición de utillaje, herramientas y pequeña maquinaria.	50	6.500
	b) Ekipamendu informatikoa eta softwarea eskuratzea Adquisición de equipamiento informático y software.	50	2.500
Beste gastu batzuk Otros gastos	c) Artisautza-lantegiak ezarri, zabaldu edo eraldatzea Implantación, ampliación o reforma de talleres artesanos.	50	3.000
	d) Prestakuntza ikastaroetan parte hartzea Participación en cursos de formación.	90	1.500
	e) Sustapen-kanala eta online-salmenta ezartzea Establecimiento de canal de promoción y venta online.	90	2.500
	f) Sustapen komertzialeko materialak ontzea Elaboración de materiales de promoción comercial.	50	500
	g) Azoketan parte hartzea Participación en ferias.	90	2.500
	h) Erakundearen kudeaketa hobetzeko kanpo aholkularitza, eta kontabilitate eta zerga aholkularitza Consultoría externa para la mejora de la gestión, asesoria contable y fiscal.	50	5.000
	i) Artisautza-lantegia alokatzea Alquiler de taller artesano.	50	2.000

2. Arlo honetako gehieneko dirulaguntza 10.000 eurokoa izango da erakunde onuradun eta deialdi bakoitzeko.

II. KAPITULUA

2. ARLOA: TOKI-ERAKUNDEEK ETA ARTISAUTZA- ELKARTEEK BULTZATURIKO JARDUERAK

6. oinarria.— Dirulaguntzaren onuradunak

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko toki-erakundeak eta nortasun juridikoa duten artisautza-elkartek izan daitezke dirulaguntzen 2. arloan adierazitako dirulaguntzen onuradunak.

2. Aurreko atalean adierazitako erakundeek baldintza hauek bete beharko dituzte dirulaguntzaren onuradun izateko:

- Bizkaiko Artisautzako Erakundearen Erregistroan (azaroaren 30eko 157/2021 Foru Dekretuak arautzen du erregistro hori) artisautza-erakunde moduan inskribatuta egotea deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den unean, eta bertan sartzeko baldintza guztiak betetzea, salbu eta toki-erakundeak eta haien erakunde autonomoak.
- Egunean edukitzea zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzeari dagozkionak. Era berean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3 bis artikulua araberaren (aurrerantzean, 38/2003 Legea), 30.000,00 eurotik gorako dirulaguntzetan, eskatzaileak merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legeari (aurrerantzean, 3/2004 Legea) lotuta.



ko irabazi-asmorik gabeko zuzenbide publikoko erakundeez bestelako pertsona fisikoak edo juridikoak badira, ordainketa-epeak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute, artikuluko horretan xedatutako baldintzetan. Enpresa hornitzaileari alde aurretik kobratzea ahalbidetzen dion finantzaketa oro baliozkotzat joko da apartatu hau betetzeari dagokionez, baldin eta haren kostua bezeroaren kontura bada eta, ordaindu ezean, hornitzailearengana jotzeko aukerarik gabe egiten bada. Baldintza hori betetzen dela eskabidea aurkezten den unean egiaztatuko da, eta egiaztatu ezean, zuzentzeko errekerimendua egingo da.

- c) Ez egotea Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren (aurrerantzean 5/2005 Foru Araua) 12. artikuluan jasotako debeku-egoeretako batean ere.
3. Baldintza guztiak bete behar dira eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, eta emakidak eta ordainketak egiten diren unera arte mantendu.
4. Ezingo dute deialdi honetan parte hartu, ezta onuradun izan ere, honako hauek:
 - a) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan (aurrerantzean 4/2018 Foru Araua) eta 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2. artikuluan adierazitako egoeretako batean dauden pertsona fisiko eta juridikoak, publikoak zein pribatuak.
 - b) Pertsona fisikoak eta juridikoak, publikoak edo pribatuak, administrazioaren ebazpen irmo bidez zigortuak izan direnak Tratu berdintasunaren eta diskriminazio ezaren uztailaren 12ko 15/2022 Lege Integralaren IV. tituluan aurreikusitako termino eta epeetan oso larri gisa kalifikatutako arau-hausteengatik.

7. oinarria. — Diruz lagundu daitezkeen egitatea

1. Honako hauek joko dira diruz laguntzeko egitatzat:
 - a) Sektorearen kudeaketa eta lehiakortasuna hobetzeko jarduketak.
 - b) Bizkaiko artisautza ezagutzera eman eta sustatzeko jarduketak.
 - c) Artisautza-erakundeentzako trebakuntza-jarduerak antolatzea.
 - d) Artisautza-azokak antolatzea Bizkaian.
2. Ez da dirulaguntza jaso dezakeen egitatea izango sexua edo 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.1 artikuluan jasotako askotariko diskriminazio faktoreak direla-eta diskriminatzailea den jarduera.
3. Ez da dirulaguntza jaso dezakeen egitatea izango 15/2022 Legearen IV. tituluan arau-hauste gisa kalifikatutako praktikak erasotzen, suspertzen edo onartzen dituen jarduera edo xedea betetzea.

8. oinarria. — Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak

1. Diruz lagun daitezkeen gastutzat joko dira proiektu edo jardueraren izaerari eta garapen normalari erantzuten dioten eta epearen barruan (ikus 28. Oinarria) egin diren beharrezko gastu hauek, betiere indarreko arautegiaren arabera behar bezala justifikatu badira:
 - a) Sektorearen kudeaketa eta lehiakortasuna hobetzeko jarduketak.
Diruz lagunduko dira Bizkaian artisautzaren kudeaketa eta lehiakortasuna hobetzeko egindako jarduerak.
 - b) Bizkaiko artisautza ezagutzera eman eta sustatzeko jarduketak.
Diruz lagunduko dira Bizkaiko artisautza ezagutzera eman eta sustatzeko jarduerak burutzeko gastuak, bai eta beste erakunde batzuekin batera gauzatutako proiektuak burutzeko gastuak ere, baldin eta Bizkaiko artisautzaren bideragarritasuna aztertzeke, artisautza merkaturatzeko edota artisautza balorizatzeke badira.
 - c) Artisautza-erakundeentzako trebakuntza-jarduerak antolatzea.
Artisautza-erakundeentzako prestakuntza-ikastaroen irakasleen kostua, sustatzeko materialaren eta material didaktikoaren gastuak diruz lagunduko dira;



bereziki, artisauek produktuak sustatzeko eta saltzeko Internet eta sare sozialak erabiltzeko buruzko ikastaroak eta negozioek digitalizazioan aurrera egiteari buruzkoak.

Ikastarora joatearen kostua txikiagoa izan beharko da Bizkaiko Artisauekiko Erakundearen Erregistroan inskribatuta dauden erakundeentzat.

Horrez gain, egiaztatu beharko da bertaratzten diren artisauek-erakundearen % 60tik gora bizkaitarrak direla, salbu eta ikastarora joateko eskaera egiten duten Bizkaiko artisauek-erakundearen kopurua ez bada ehuneko horretara helden; kasu horretan, behar bezala justifikatuko da inguruabar hori.

d) Artisauek-azokak antolatzea Bizkaian.

Diruz lagunduko da Bizkaian gutxienez 2 eguneko iraupena duten artisauek-azokak antolatzearen kostua.

Diruz lagun daitekeen gastutzat jo daitezten, Bizkaiko Artisauekiko Erakundearen Erregistroan azaltzen diren erakunde guztiei helarazi beharko zaie azokari buruzko informazioa.

Azokan parte hartzeko zoruaren eta standaren alokairu kostua txikiagoa izan beharko da Bizkaiko Artisauekiko Erakundearen Erregistroan inskribatuta dauden erakundeentzat.

Artisauek-erakundeek azokan aurkeztu behar dituzte nor bere Artisauekiko Erakundearen Erregistroan inskribatuta dagoen jarduerari dagozkion produktuak.

Era berean, erakunde parte-hartzaile guztiek, azoka egiten den egunean, frogatu beharko dute alta emanda dagoela nor bere erregistroan. Hala ere, erakunde parte-hartzaileak jarduera gauzatzen duen lekuan erregistrorik ez badago, egiaztatu beharko du data horretan alta emanda dagoela dagozkion Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren epigrafean.

Artisauekiko produktuen elaborazioan ezagutza erakusten duten bizkaitarrek azokan parte hartu ahal izango dute baldin eta, Bizkaiko Artisauekiko Erregistroan alta emanda egon ez arren, galtzeko arriskuan diren artisauek-ofizioetako bat praktikatzeko badute eta azokan parte hartuko duten denboraren zati bat ofizio hori erakusteko erabiltzen badute.

Horrez gain, egiaztatu beharko da parte hartzen duten artisauek-erakundearen % 60tik gora bizkaitarrak direla, salbu eta azokan parte hartzeko eskaera egiten duten Bizkaiko artisauek-erakundearen kopurua ez bada ehuneko horretara helden; kasu horretan, behar bezala justifikatuko da inguruabar hori.

Halere, honako arau hauetan artisauek-ofiziotzat jotzen ez diren ofizioei dagozkien guztizko parte-hartzearen %15etik beherako parte-hartzea onartuko da: 11120/2021 Foru Agindua, zeinak garatzen baitu Bizkaiko Artisauekiko Erakundearen Erregistroa arautzen duen azaroaren 30eko 157/2021 Foru Dekretua, eta gerora hauek aldatzen edo ordeztzen dituzten xedapenak.

2. Honako hauek ez dira dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat joko:

- a) Elkarte edo toki-erakundearen barneko zein kanpoko pertsonaleko gastuak, proiektuan onartutako kanpo-gastuaren %20 gaindituz gero.
- b) Ospakizunek, oturuntzek edo sustapen-jaiek eragindako gastuak.
- c) Bidaia, ostatu eta mantenu gastuak.
- d) Gastu orokor osagarriak; adibidez, administrazio-gastuak, dietak, kontsumo orokorrak (energia, ura, mezulariak, posta, garbiketa, telefonia, segurtasuna, bulegoko materiala...).
- e) Zergak eta tasak, baita BEZa ere, salbu eta erakunde onuradunak ezin duenean berreskuratu edo konpentsatu.
- f) Eskatzailearen eta erakunde hornitzailearen artean lotura dagoen kasuetan gastuek ez dute dirulaguntzarik jasoko, salbu eta 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 27.7.d) artikuluan gastu horiek diruz lagungarritzat jotzeko baldin-



tzak betetzen direnean. Ondorio horietarako, lotura dagoela ulertuko da Dirulaguntzen Erregelamendua onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 53.2. artikuluan ezarritako kasuetan.

- g) Dirulaguntzaren xede den jarduerarekin zalantzarik gabe identifikatu ezin diren gastuak.
- h) Deialdi bakoitzean ezarritako exekuzio-epean fakturazten ez diren gastuak.
- i) Ezarritako justifikazio-aldia amaitu ondoren ordaindutako gastuak.
- j) Merkatuko balioa gainditzen duten gastuak.
- k) Merkataritza-eragiketetan egindako gastuak, baldin eta sektoreko araudi aplikagarrian aurreikusitako ordainketa-epeak bete gabe ordaindu badira, edo, halakorik ezean, 3/2004 Legean ezarritakoak bete gabe.

3. Dena dela, diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (aurrerantzean 9/2017 Legea) kontratu txikiarako ezarritako zenbatekoak gainditzen dituenean, hau da, 15.000 euro edo gehiago hornidura eta zerbitzuen kasuan, onuradunak, gutxienez, hiru hornitzaile ezberdinen eskaintzak eskatu beharko ditu zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta, diruz lagundu daitezkeen gastuen ezaugarri be-reziengatik, merkatuan ez bada nahikoa erakunderik halakorik hornitu edo eskaintzen duenik, edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin bada.

4. Aurkeztutako eskaintzak justifikazioan jaso beharko dira edo, hala badagokio, dirulaguntza eskaeran, eta haien artean aukeratzeko, eraginkortasun eta ekonomia iriz-pideak hartuko dira kontuan, eta, proposamen ekonomiko onuragarriena aukeratzeko ez denean, aukeraketa memoria batean justifikatu beharko da espresuki.

9. oinarria. – Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua

1. Dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko, kontuan hartuko dira behean ezartzen diren dirulaguntza-portzentajeak eta gehieneko mugak:

Jarduketa Actuación	Dirulaguntzaren %a % de subvención	Gehieneko erabateko dirulaguntza (eurotan) Subvención máxima por hecho subvencionable (€)
a) Sektorearen kudeaketa eta lehiakortasuna hobetzeko jarduketak Actuaciones para la mejora de la gestión y de la competitividad del sector:		
Sektorearen kudeaketa eta lehiakortasuna hobetzeko jarduketak Actuaciones para la mejora de la gestión y de la competitividad del sector.	50	15.000
b) Bizkaiko artisautza ezagutzera eman eta sustatzeko jarduketak Actuaciones de difusión y promoción de la artesanía de Bizkaia:		
Bizkaiko artisautza ezagutzera eman eta sustatzeko jarduketak Actuaciones de difusión y promoción de la artesanía de Bizkaia.	75	25.000
c) Artisautza-erakundeentzako trebakuntza-jarduerak antolatzea Organización de actividades de formación, dirigidas a entidades artesanas:		
Gastua, antolatutako ikastaro bakoitzeko Gasto por curso organizado.	75	20.000
d) Artisautza-azokak antolatzea Bizkaian Organización de ferias de artesanía en Bizkaia:		
7 eguneko edo gutxiagoko azoka bada. Feria con duración inferior o igual a 7 días.	50	35.000
7 egun baino gehiagoko azoka bada. Feria con duración superior a 7 días.		45.000



III. KAPITULUA

AURREKONTUKO KREDITUAK**10. oinarria.— Aurrekontuko zuzkidura**

1. Deialdi honetan eman daitezkeen laguntzak eta onurak, guztira 375.000 euro, jarraian zerrendatuko diren aurrekontu-partiden kontura ordainduko dira; ondoren adierazten diren gutxi estimatutako kopurueta banakatuko dira, eta haien muga partida bakoitzean ezarritako guztizko kopurua izango da:

Urtekoa	Aurrekontuko partida	Zenbatekoa
2024	0809/G/433121/ 44300/ 0000 2007/0109	168.000,00
2025	0809/G/433121/ 44300/0000 2007/0109	42.000,00
2024	0809/G/433121/ 44900/0000 2007/0109	14.000,00
2025	0809/G/433121/ 44900/0000 2007/0109	3.500,00
2024	0809/G/433121/ 74300/0000 2007/0109	35.400,00
2025	0809/G/433121/ 74300/0000 2007/0109	9.700,00
2024	0809/G/433121/ 74900/0000 2007/0109	800,00
2025	0809/G/433121/ 74900/0000 2007/0109	200,00
2024	0809/G/433121/ 45100/0000 2007/0109	52.900,00
2025	0809/G/433121/ 45100/0000 2007/0109	13.500,00
2024	0809/G/433121/ 43299/0000 2007/0109	28.000,00
2025	0809/G/433121/ 43299/0000 2007/0109	7.000,00

2. Aurrekontuko partidei esleitutako kopuruak gutxi gorabeherakoak dira. Onartzen diren eskabideen arabera — eta erakunde onuradunen izaera juridikoak eta diruz lagundutako gastuen kontzeptuak askotarikoak izan daitezke —, aurrekontuko partidei esleitutako baliabide ekonomikoak partiden eta/edo arloen artean egokitu ahal izango dira, gastua aldatzeko espedientearen bidez edo espedienteen bidez. Horretarako, ez da beharrezkoa izango foru-dekretu hau aldatzea, betiere partiden zenbateko osoak ezarritako muga gainditzen ez badu. Organo emaileak argitaratuko du behin betiko banaketa emakida ebazpenaren aurretik deialdiaren bitarteko berberetan. Publizitate horrek ez du esan nahi eskari berriak aurkezteko epea irekiko denik, ezta ere ebazteko epe berria hasiko denik.

3. Deialdi honetan ageri den gehienezko zenbatekoa gutxi gorabeherakoa da eta, beraz, 5/2005 Foru Araua garatzeko dirulaguntzen erregelamendua onesten duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren (aurrerantzean 34/2010 Foru Dekretua) 41.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen aldatu ahal izango dira aurrekontu-kredituak, Gobernu Kontseiluak onetsitako foru-dekretu baten bidez, kontuan izanda zein den, aurreikuspenen arabera, eskatutako dirulaguntzen zenbateko osoa. Hala eginez gero, eskabideak aurkezteko epea luzatu behar izango da.

4. 34/2010 Foru Dekretuaren 43. artikuluan ezarritakoaren arabera, aurrekontu zuzkiduraren zenbateko osoa gehienez ere zenbateko osagarri honekin handitu ahal da: 100.000 euro:

- Edo zenbateko osagarria dagoenean eta zenbateko hori deialdi batzuentzat aurreikusitako zenbateko txikiagorekin ebatzitako aurreko deialdietatik datorrenean.
- Edo emandako dirulaguntzak baino zenbateko txikiagoengatik aurreko deialdietatik eratorritako betebeharrak aitortu edo likidatu direnean.
- Edo honakoak onetsi direlako eskuragarri dauden kredituak handitzen direnean:
 - Kredituak handitzeak.



- 2) Kredituak sortzea.
- 3) Kredituak sartzea.

Zenbateko osagarriaren eraginkortasuna kreditu eskuragarritasun deklarazioaren baldintzapean egongo da; deklarazioa dirulaguntzaren emakida ebatzi aurretik egin beharko da. Handitze hori organo emaileak baimenduko du eta eskuragarri dauden kredituen deklarazioa argitaratu beharko du emakida ebazpenaren aurretik deialdiaren bitarteko berberetan. Gainera, publizitateak ez du esan nahi eskari berriak aurkezteko epea irekiko denik, ezta ere ebazteko epe berria hasiko denik.

5. Deialdiko eskabide guztiak ebatzi ondoren, guztira dirulaguntzetarako emandako diru kopurua aurrekontu-muga baino txikiagoa balitz, gastu-baimenaren ezeztapena tramitatuko litzateke, soberan den zenbatekoan, foru-dekretu hau aldatu beharrik gabe.

II. TITULUA ARAUBIDE JURIDIKOA

11. oinarria. — *Araubide juridikoa*

1. Deialdi honetan ezarritako dirulaguntzak araudi honekin bat arautuko dira: oinarri hauek, 5/2005 Foru Araua, 34/2010 Foru Dekretua, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira
2. Era berean, nola ematen diren dirulaguntzak minimis laguntzatzat joko diren, honako araudi hauen pean egongo dira: Batzordearen 2023/2831 (EB) Erregelamendua, 2023ko abenduaren 13koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa.

12. oinarria. — *Organo eskudunak eta erakunde laguntzailea*

1. Espedienteak Eskualde Garapenerako Zerbitzuak antolatu eta izapidetuko ditu, Lurralde Lehiakortasunerako eta Kanpo Sustapenerako Zuzendaritza Nagusiaren agindupean.
2. Espedienteen ebaluazioa ebaluazio-batzorde batek egingo du. Batzorde hori honela osatuko da:
 - a) Epaimahaiburua: Eskualde Garapenerako Zerbitzuko burutza betetzen duen pertsona edo hura ordezkatzen duen pertsona.
 - b) Kideak:
 - 1) BEAZ SAU erakundeko Artisautzarako koordinazioa betetzen duen pertsona edo hura ordezkatzen duen pertsona.
 - 2) BEAZ SAU erakundeko Ekonomia Sustatzeko Zuzendaritza betetzen duen pertsona edo hura ordezkatzen duen pertsona.
 - c) Idazkaria: Eskualde lankidetzarako ataleko burutza betetzen duen pertsona edo hura ordezkatzen duen pertsona.

Lehendakariak kalitate-botoa izango du berdinketak ebazteko, eta idazkariak ahotsarekin eta botorik gabe jardungo du.

3. Ebaluazio-batzorde hau osatzeko orduan, kontuan hartu beharko da bi sexuen artean ordezkaritza orekatuta egotea. Horrek esan nahi du bi sexuek nahikotasunez ordezkatuta egon behar dutela, hala ezartzen baita 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.10. artikuluan eta 4/2018 Foru Arauaren 44. artikuluan. Batzordea osatzen duten pertsonak betetzen duten karguagatik kide direnean, aipatutako araudian kasu horietarako jasotako salbuespena aplikatuko da.

4. Espedienteak ebaztea Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari dagokio, instrukzio-organoak eta Lurralde Lehiakortasunerako eta Kanpo Sustapenerako Zuzendaritza Nagusiko titularrak proposatuta, ebaluazio-batzordeak txostena eman ondoren.

5. BEAZ SAU sozietateak erakunde laguntzaile gisa jardungo du, Bizkaiko Foru Aldundiarekin sinatutako lankidetzeta-hitzarmenean xedatutakoa betez, eta hitzarmen



horretan eta oinarri arautzaile hauetan adierazten diren eginkizunak beteko ditu. Era berean, indarrean dagoen dirulaguntzei buruzko araudiaren ondoriozko betekizunak eta betebeharrak bete beharko ditu.

6. Lankidetzeta-hitzarmena aldez aurretik suntsiarazten bada, hitzarmena suntsiarazteko akordioan jasotzen diren jarraibideei jarraituko zaie.

13. oinarria. — Arau-hausteak eta zehapenak

1. Arau-hausteen eta zehapenen araubidea 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan eta 34/2010 Foru Dekretuaren IV. tituluan xedatzen dena izango da.

2. Aplikatu beharrekoa izango da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean (aurrerantzean 39/2015 Legea) ezarritakoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritakoa, bai eta Euskal Administrazio Publikoen zigortzeko ahalmenari buruzko marxoaren 16ko 1/2023 Legean ere, aurreko manuari kontra egin gabe xedatzen dena ere.

14. oinarria. — Ez-betetzea eta dirulaguntza itzultzea

1. Jarraian aipatzen diren kasuetan, itzuli egin beharko dira jasotako dirulaguntza, dirulaguntza ordaindu den unetik itzultzea erabakitzen den datara bitartean dagozkion berandutza-interesak, eta, hala badagokio, galdu egingo da dirulaguntza kobratzeko eskubidea.

- a) Oinarri hauetan, emakidaren ebazpenean edo aplikatu beharreko araudian ezarritako betebeharrak edo baldintzaren bat betetzen ez denean.
- b) 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan edo 34/2010 Foru Dekretuan aurreikusitako kausaren bat gertatzen denean.

2. Itzuli beharreko diru-kopuruak zuzenbide publikoko sarreratzat joko dira, ondorio guztietarako.

3. Itzuli beharreko zenbatekoei aplikatu beharreko berandutze-interesa 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan aurreikusitakoa izango da.

4. Dirua itzultzeko prozedura 5/2005 Foru Arauaren II. tituluan eta 34/2010 Foru Dekretuaren III. tituluan xedatutakoaren arabera izapidetuko da.

5. Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak ez betetzeak mailakatzeko irizpideak honako hauek izango dira:

- a) Dirulaguntza ematea eragin zuen proiektuaren gastua ez bada xedatzen deialdian ezarritako epean, emandako dirulaguntza osoa galduko da.
- b) Dirulaguntza ematea eragin zuen jarduketaren gastuaren zati bat soilik xedatzen bada deialdian ezarritako epean, galdu egingo da xedatu ez den zatiari dagokion dirulaguntza, betiere xedapen partzial horrek diruz lagundutako jarduketaren helburua lortzea eragozten ez badu.
- c) Jarduketa gauzatzeko epeak betetzen ez badira, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira, berandutze-interesekin batera. Hala ere, jarduketak ez badira amaitu epe orokorrean edo luzapen-epean, baina zatiren bat epe barruan egin bada, epe barruan egin ez den zatiaren dirulaguntzaren zenbatekora mugatuko da itzultzeko betebeharra, baldin eta gauzatze partzial horrek ez badu eragozten jarduketaren xedea lortzea.
- d) Ekintzak edo gastuak gauzatu edo justifikatzean ez-betetze partziala gertatzen bada, itzuli beharreko zenbatekoa proportzionaltasun-irizpidearen arabera zehaztuko da, dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzen entitatea eta ez-betetze maila kontuan hartuta.
- e) Gehiegizko finantzaketa gertatzen bada,aldi berean beste laguntza batzuk jaso direlako –5/2005 Foru Arauaren 18.3. artikuluan jasotako balizkoa–, behar denaren gainetik jasotako kopurua itzuli beharko da, eta kopuru horri dagokion berandutze-interesa ezarriko zaio. Berdin-berdin jokatuko da de minimis baldintzak betetzen ez badira baimendutako laguntzak gainditzeagatik.



- f) Hedapen, gardentasun, hizkuntza koofizialen erabilera, genero berdintasun eta bestelako gizarte politika betebeharrak betetzen ez badira kobratzeko eta/edo itzulketa partziala jasotzeko eskubidea galduko da gehienez ere emandako dirulaguntzaren %10eko zenbatekoan. Kasu bakoitzarentzat adierazitako gehieneko mugaren barnean emandako dirulaguntzaren ehunekoa zehazteko proportzionaltasun printzipioa aplikatuko da honako irizpideen arabera: bete ez diren betebeharrak, horien tamaina, onuradunak horiek bete edo bete ez dituen, ez betetzearen arrazoiak eta ez betetze horiek nola eragiten duten helburuak lortzean, jarduera egitean, proiektua egikaritzean edo dirulaguntzaren emakida oinarritzen duen jokaera izatean.
- g) Oinarri hauetan ezarritako gainerako betebeharrak betetzen ez badira, emandako dirulaguntza zati batean galduko da eta, itzuli beharreko zenbatekoa proportzionaltasun-irizpidearen arabera ezarriko da, ez-betetzeak lortu nahi den helbururako duen garrantzia eta interes publikorako eragiten duen kaltea kontuan hartuta.

15. oinarria. — Dirulaguntza erakunde onuradunaren ekimenez itzultzea

1. Onuradunak berak Administrazioaren aurretiazko errekerimendurik gabe egindakoa da borondatezko itzulketa.
2. Borondatezko itzulketa egiten denean, Administrazioak dagozkion berandutze-interesak kalkulatuko ditu 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera eta pertsona edo erakunde onuradunak behin betiko itzulketa benetan egin duen unera arte.
3. Onuradunak berak bere borondatez itzuli nahi badu dirulaguntza, ordainketa-gutuna erabili beharko du, Bizkaiko Foru Aldundiaren eredu ofizialaren arabera, Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualean eskatu eta gero. Ordainketa egin ondoren, ordainagiria bulego birtualaren bidez bidali beharko da.

III. TITULUA**DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA****16. oinarria. — Dirulaguntza-eskabideak aurkezteko lekua, era eta epea eta ondorengo izapideak eta SEPEn inskribatzea**

1. Dirulaguntza-programa honetan parte hartu nahi duten pertsona fisikoek, euren izenean, eta haien ordezkariak konpromisoa hartuko dute Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez (<http://www.bizkaia.eus/sustapena-oficinavirtual>) dirulaguntza jasotzeko eskaera formalizatzeko, dokumentazioa bidaltzeko, justifikazioak egiteko, errekurtsioak jartzeko, alegazioak egiteko, dagoeneko irekita dauden espedienteei buruzko aldaketak aurkezteko eta edozein izapide egiteko. Izan ere, kontuan izanik erakundeon gaitasun ekonomiko eta teknikoak eta haien dedikazio profesionala, ulertu behar da bermaturik dutela behar diren bitarteko teknologikoak eskuratu eta erabiltzeko modua, 39/2015 Legearen 14.3. artikuluaekin bat etorrira. Pertsona juridikoak, nortasun juridikodunak edo nortasun juridikorik gabekoak, eta horiek ordezkatzan dituztenak, behartuta daude administrazio publikoekin elektronikoki harremanetan jartzera, lege beraren 14.2 artikuluaaren arabera, eta hori egingo dute, laguntza hauen eskaerei dagokienez, Sustapen Elektronikoko Sailaren bulego birtual horren bidez.
2. Interneten aurkeztu behar dira eskaerak, «Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtuala» atalean, Bizkaiko Foru Aldundiaren web-orri instituzionaleko egoitza elektronikoa.
3. Bulego birtualean sartzeko, bertan adierazten den indarreko araudiaren arabera onartutako identifikazio eta sinadura elektronikoko edozein bide erabili ahal izango da. Bitarteko horiei esker, eskaerak egin daitezke pertsona juridikoen ordezkari gisa. Identifikazio eta sinadura elektronikorako B@kQ txartela erabili nahi izanez gero, jakinarazten da Ekonomia Sustatzeko Sailaren egoitzan eskura daitekeela (Orueta apezpikua 6, Bilbo).
4. Eskabidea betetzean, aldi berean jasoko dira, laguntza-programa honetarako eskabidearen datuez gain, erakundearen edo pertsonaren oinarritzko datuak eta Bulego



Birtualean kudeaketa telematikoak egiteko baimendutako ordezkarienak eta laguntzailenak. ESEPEn (Bizkaiko ehun ekonomiko eta sozialaren garapenarekin loturiko eza-gutza gestionatzeko Erakundeen eta Pertsona Fisikoen Erregistroaren arauketa eta haren administrazio-prozedurak, Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 7ko 25/2024 Foru Dekretuaren bidez arautua) alta emanda egonez gero, une horretan indarrean dauden erregistro-datuak emango dira (edo aurrez eskatutakoak eta inskribatu gabeak), eguneratzeko. Sinadura elektronikokoak eta eskaeraren bidalketa telematikoak ere eragingo dute ESEPEren erregistro-datuaren alta- edo aldaketa-eskaera bidaltzea. Beharrezkoa izango da ESEPEn inskribatuta egotea eta datuak eguneratuta egotea ebazteko eskumena duen organoari aurkeztutako eskabidearen edo eskaeren ebazpen-proposamena egiten den unean; bestela, aurkeztutako eskaera edo eskaerak ezetsi egingo dira. SEPEn inskribatuta egoteko baldintza espedientea izapidetzen den bitartean eta organo eskudunari aurkeztu beharreko behin betiko proposamena egiten den unean egiaztatuko da.

5. Aurreko apartatuan aipatzen den erregistroa eta 2. eta 6. oinarrietan onuradun izateko aipatzen den erregistroa (azaroaren 30eko 157/2021 Foru Dekretuaren bidez araututako Bizkaiko Artisautzako Erakundeen Erregistroa) independenteak dira. Aurreko apartatuan ezarritako betebeharrak betetzeak ez du salbuesten Artisautzako Erakundeen Erregistroak ezarritakoak betetzeak, hau da, erregistroan egoteko informazioa eguneratua izatea eta laguntza honen onuradun izaten jarraitzea.

6. Eskabideekin batera, hurrengo oinarrian adierazitako dokumentazioa aurkeztu behar da, bulego birtualean dagoen agiriak eransteko sistema erabilia. Era berean, eskabide horietan eskatutako informazioa eta erantzukizuneko adierazpenak aurkeztu beharko dira.

7. Hona eskabideak aurkezteko epea: 2024ko apirilaren 15eko 8:30etatik 2024ko maiatzaren 15eko 13:30etara.

17. oinarria. — Eskabidea egiteko beharrezko dokumentazioa eta interoperabilitatea

1. Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez aurkeztutako eskabideak bulego birtualaren bidez bete eta aurkezteko dauden eredu espezifikoaren arabera-koak izango dira, 39/2015 Legearen 66.6. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita.

2. 1. arloan, laguntza-eskaera bakarra aurkeztu ahal izango da eskatzaile bakoitzeko. Erakunde batek eskaera bat baino gehiago aurkezten badu, organo instrukzio-egileak lehendabizi jasotako eskabideak baino ez ditu ebaluatuko, eta gainerako eskabideak automatikoki baztertuko dira.

3. 2. arloan, behean zerrendatzen diren irizpideak aplikatzearen ondoriozko adina laguntza-eskaera aurkez daitezke eskatzaile bakoitzeko:

- Eskabide bat sektorearen kudeaketa eta lehiakortasuna hobetzeko egiten diren jarduera guztientzat.
- Eskabide bat Bizkaiko artisautza ezagutzera eman eta sustatzeko jarduera guztietarako.
- Eskabide bat artisautza-erakundeentzako prestakuntza-jarduera bakoitzeko.
- Eskabide bat antolatuko duten artisautzako azoka bakoitzeko.

4. Agiri administratibo eta tekniko hauek aurkeztu behar dira 1. arloko eskabideekin batera:

- Banku-helbideratzearen fitxa, Bizkaiko Foru Aldundian banku-helbideratzeari buruzko datuak ez badaude edo bertan dauden datuak aldatu nahi badira.
- Hala dagokionean, ingurumen-ziurtagiria, genero-berdintasuneko ziurtagiria edo/eta euskara-sustapenaren arloko ziurtagiria.

5. Agiri administratibo eta tekniko hauek aurkeztu behar dira 2. arloko eskabideekin batera:

- Web-orrian eskuratu daitekeen ereduaren araberrako eskaera-memoria, egingo den jarduera deskribatzen duena.



- b) Elkarteen kasuan, bazkide diren eta Bizkaiko Artisautzako Erakundeen Erregistroan dauden erakundeen zerrenda, oinarri hauek argitaratzen diren datan eguneratua.
- c) BEZa sartuta fakturatutako kanpo-gastuen kasuan, zinpeko adierazpena, egiaztatzeko erakundeak ezin duela BEZa berreskuratu eta konpentsatu. Web-orrian eskuragarri dagoen eredia erabili behar da.
- d) Banku-helbideratzearen fitxa, Bizkaiko Foru Aldundian banku-helbideratzeari buruzko datuak ez badaude edo bertan dauden datuak aldatu nahi badira.
- e) Hala dagokionean, ingurumen-ziurtagiria, genero-berdintasuneko ziurtagiria edo/eta euskara-sustapenaren arloko ziurtagiria.

6. Eskabidearekin batera, eskatzaileak zerrenda bat aurkeztu beharko du, eskabidea formalizatzen denetik hiru urteko edozein alditan jasotako eta 2023/2023 (EB) Erregelamenduari edo minimis beste erregelamendu batzuei lotuta dauden minimis beste laguntza batzuekin. Aitorpen horretan, aipatutako Erregelamenduaren 2.2 artikuluan araututako «enpresa bakarra» kontzeptuaren barruan jasotako minimis laguntzen guztizkoa jaso beharko da

7. Ekonomia Sustatzeko Sailak, Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoaren bidez eta dagozkion elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez, aurkeztu diren eskabideen administrazio-izapideak egiteko eskatutako pertsona eta erakunde interesdunen datuak egiaztatu eta kontsultatuko ditu, 39/2015 Legearen 13., 28. eta 53. artikuluetan aitortutako eskubideei kalterik egin gabe.

8. Laguntza-eskaerak berekin ekarriko du beste bitarteko batzuen bidez beste administrazio publiko batzuetatik informazio egokia lortzeko baimena, baldin eta arrazoi teknikoengatik ezin bada lortu elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez.

9. Arrazoi teknikoak direla eta, ez bada posible informazioa zuzenean beste administrazio batzuetatik eskuratzea, Ekonomia Sustatzeko Saileko Eskualde Garapenerako Zerbitzuak izapideak egiteko beharrezkotzat jotzen dituen datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

10. Datuak zuzenean bildu edo kontsultatuzeko aukera izango da aurkeztutako eskabidearekin zerikusia duten beste izapide eta prozedura intzidental batzuetara iristeko, eskaera egitean baimendutakoaren arabera.

18. oinarria. — Eskabidea zuzentzea edo hobetzea

1. Eskabideak elektronikoki egiten ez badira, estandarrak eta formatuak betetzen ez badituzte, termino guztiak betetzen ez badira, edo eskabidearekin batera foru-dekretu honetan eskatutako agirietakoren bat aurkeztu ez bada, errekerimendua egingo zaio interesdunari, hamar (10) egun balioduneko epearen barruan akatsa zuzendu edo beharrezko agiriak aurkez ditzan. Era berean, ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskaera artxibatu egingo dela.

2. Instrukzio-organoak aurkezten diren eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia bildu ahal izango du, Saileko eta/edo erakunde laguntzaileko langileek bisitak egitea barne.

19. oinarria. — Dirulaguntza emateko prozedura

1. Norgehiagoka da dirulaguntzak emateko erabiliko den prozedura; horretarako, deialdi eta hautaketa-prozedura bakarrak egingo dira.

2. Foru-dekretu honen ondorioetarako, honako hau jotzen da norgehiagoka prozeduratzat: dirulaguntzak emateko, aurkeztu diren eskabideak konparatzea, eta, aurretik ezarritako ebaluazio-irizpideen arabera, lehentasun-hurrenkera ezartzea, erabilgarri dagoen kredituaren arabera, puntuazio handiena lortu dutenei dirulaguntzak adjudikatuzko.

**20. oinarria. — Eskabideak baloratzeko irizpideak**

1. 1. arloko eskabideak irizpide hauen arabera baloratuko dira eta ponderazio hau emango zaie:

- a) Erakundearen lehiakortasuna hobetzea: 50 puntu, gehienez.

Jardueraren jarraipena ahalbidetzen duten jarduerak baloratuko dira, baita artisau-negozioaren lehiakortasuna hobetzen dutenak ere.

Ondore horretarako lehentasuna emango zaio enpresako arlo baten baino gehiagotan jarduketak egitea bideratuko duen proiektu integral bat egiteari.

Hala, honako proposamen hauek hartuko dira aintzat: lanabesak, tresnak eta makina txikiak eskuratzeko direnak; ekipamendu informatikoa eta softwarea erostekoak; artisau-tailerra hobetzekoak; egindako jarduerarekin lotutako etengabeko prestakuntza; online kanala indartzekoak; merkataritza-sustapenerako materialak diseinatzeko eta/edo egiteko direnak; artisautza-azoketan parte hartzekoak, eta enpresaren kudeaketa hobetzeko kanpo-aholkularitzari lotutakoak.

- b) Erakundeak artisautza-jarduerari eusteko duen konpromisoa: 30 puntu, gehienez.

Jardueran egindako esperientzia-urteak baloratuko dira, baita jarduera edo bolumenari dagokionez txikiak diren edo galtzeko arriskuan dauden artisau-jarduerak mantentzea ere. Irizpide honen ondorioetarako deialdi hau argitaratzen den egunean Bizkaiko Lurralde Historikoko Artisautza Erakundearen Erregistroan dauden datuak hartuko dira kontuan.

- c) Proiektuaren eragin gradua: 10 puntu, gehienez.

Irizpide honek proiektuak erakunde eskatzailearen negozioan izan dezakeen eragina puntuatzen du.

Erakunde eskatzaileak termino ekonomikoetan lehiakortasuna hobetzeko proiektuari ekiteko aurreikusitako ahalegina baloratuko da.

- d) Erakundeak ingurumenarekin duen konpromisoa, proposatutako jarduerak ingurumenean duen eragin positiboa eta erakundeak euskararen sustapenarekin duen konpromisoa: 5 puntu, gehienez.

Baloratuko dira erakunde eskatzaileak aurkezten dituen indarreko ingurumen-ziurtagiriak, aurreikusitako jarduerak ingurumenean duen eragin positiboa eta erakunde publiko eskudun batek euskararen sustapenarekin lotuta emandako aitortpenak eta/edo diplomak.

- e) Erakunde eskatzaileak emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiken edo jardueren garapenean egindako ibilbidea: 2,5 puntu.

Baloratuko da erakunde eskatzaileak emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiken edo jardueren garapenean egindako ibilbidea eta erakunde publiko eskudun batek gaiarekin lotuta emandako aitortpenak eta/edo diplomak.

- f) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko prestakuntza: 2,5 puntu.

Erakunde eskatzaileak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez jasotako prestakuntza baloratuko da.

2. 2. arloko eskabideak irizpide hauen arabera baloratuko dira eta ponderazio hau emango zaie:

- a) Diruz lagun daitekeen jardueraren eta Ekonomia Sustatzeko Sailaren helburuen arteko koherentzia: 30 puntu, gehienez.

Baloratuko da proposamena Ekonomia Sustatzeko Sailaren ardatz estrategikoekin bat etortzea: berrikuntza, artisautza-erakunde berriak sustatzea, etengabeko prestakuntza, atzerriko proiektzioa eta turismoaren sektorearekiko sinergiak.

Ildo horretan, eskabideei puntu gehiago emango zaizkie dirulaguntza jaso dezakeen egitatearen arabera eta 7. oinarrian adierazitako lehentasun-hurrenkeraren arabera.



- b) Ekimenaren berritasuna: 30 puntu, gehienez.
Baloratuko dira ekimenaren berritasun maila, proiektu estrategikoen sustapena, egindako proposamenen berrikuntza eta sormen-maila, eta aurreko urteekin alderatuta proiektuan txertatu diren proposamen desberdinak.
- c) Artisautza-sektorearen sustapena hobetzea: 20 puntu, gehienez.
Baloratuko dira artisautza bultzatzeko, ezagutzera emateko, sustatzeko eta balorizatzeko egon litezkeen jarduketak eta Bizkaiko artisautza-jarduera sustatzeko eta kanpora proiektatzeko erakundeen artean egin litezkeen lankidetzaproiektuak.
Horretarako, kontuan hartuko dira, Bizkaiko Artisautzako Erakundearen Erregistroan egonda, jarduketan parte-hartze aktiboa duten artisautza-erakundeak edo zuzenean edo zeharka jarduketaren onuradun direnak.
- d) Proiektuaren kalitatea eta bideragarritasuna: 10 puntu, gehienez.
Baloratuko dira aurreko urteekin alderatuta, sektorearen beharrezko hobeto erantzutea ahalbidetzen duten hobekuntzak eta ikasbideak, lehiakortasunean duen eragina eta proposamenak artisautza-erakundeentzat duen onarpen-maila.
- e) Erakundearen konpromisoa ingurumenarekin eta euskararen erabilerarekin: 5 puntu, gehienez.
Irizpide hau ebaluatzeko, aintzat hartuko dira erakunde eskatzaileak aurkezten dituen indarreko ingurumen-ziurtagiriak, bai eta honako hauekin lotuta erakunde publiko eskudunak emandako aitortpenak eta/edo diplomak ere: jardueretan euskara sustatzea.
- f) Erakunde eskatzaileak emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiken edo jardueren garapenean egindako ibilbidea: 2,5 puntu, gehienez.
Baloratuko da erakunde eskatzaileak emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiken edo jardueren garapenean egindako ibilbidea eta erakunde publiko eskudun batek gaiarekin lotuta emandako aitortpenak eta/edo diplomak.
- g) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko prestakuntza: 2,5 puntu.
Erakunde eskatzaileak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez jasotako prestakuntza baloratuko da.

3. Bi arlo horietan, puntuazio bera lortu duten espedienteen artean berdinketa haustea beharrezkoa bada, a) irizpidean puntuazio handiena duena lehenetsiko da. Berdinketak jarraituko balu, hurrengo irizpidea berrikusiko litzateke, b), eta horrela hurrenez hurren, berdinketa haustea lortu arte. Irizpide guztiak aztertuta oraindik ez bada lortzen berdinketa haustea, eskaera osoak iritsi diren hurrenkera hartuko da kontuan.

21. oinarria. – Ebazpena

1. Espedientearen instrukzioa amaitutakoan, ebaluazio-batzordeak aztertu eta irizpena eman ondoren, organo instrukzio-egileak ebazpen-proposamena egingo du, eta Lurralde Lehiakortasunerako eta Kanpo Sustapenerako Zuzendaritza Nagusiko titularrari helaraziko dio. Azken horrek, era berean, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari igorriko dio ebazpen-proposamena, eta hark dagokion foru-aginduaren bidez ebatziko du. Ebazpenean erabakiko da bai dirulaguntzak ematea, bai ezestea edo ez ematea.

2. Ebazpenean, emandako laguntzen, ezetsien eta eman ez diren laguntzen zerrenda jasoko da, eta, hala badagokio, horietako bakoitzari emandako puntuazioa adieraziko da, aurreikusitako balorazio-irizpideen eta ezesteko eta ez emateko arrazoen arabera.

3. Dirulaguntza emateko ebazpenean, baldintza bereziak ezarri ahal izango dira, baldin eta uste bada ezen, proiektuen izaera berezia edo gertatzen diren beste inguruabar batzuk direla bide, egoki dela halako baldintzak ezartzea, hartara kasu bakoitzari egokitzeko eta aplikatzeko foru-dekretu honetan edo aplikatzekoak diren gainerako arauetan xedaturikoa. Halaber, onarturiko dirulaguntza emateko ebazpenean adieraziko da de minimis erregelamenduari atxikitako laguntza dela, eta esplizituki adieraziko da dirulaguntza gordin baliokidearen zenbatekoa.



4. Eskaturiko dirulaguntza eman, ezetsi edo eman ez izana adierazten duen ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie.

5. Ebazpena jakinarazi ondoren, hamar (10) eguneko epea izango dute onuradunek ebazpena onartzeko, eta epe hori berenberegiko adierazpenik egin gabe igarotzen bada, ebazpena isilbidez onartu dela ulertuko da.

6. Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea sei (6) hilabetekoa izango da gehienez, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatuta. Epe horretan ebazpenik jakinarazten ez bada, eskaera ezetsizat joko da, administrazio-isiltasuna dela eta.

22. oinarria. — Errekurtsoak

1. Ebazpenak administrazio-bidea agortzen du, eta, 39/2015 Legearen 114., 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoaren arabera, interesdunak aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari, hilabeteko (1) epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

2. Era berean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko da administrazioarekiko auzien Bilboko epaitegiaren aurrean –txandaren arabera dagokiona–, bi (2) hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatuta, kontuan harturik zer ezartzen duen Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

3. Ezin izango dira bi errekurtsook aldi berean jarri.

23. oinarria. — Dirulaguntzari uko egitea

1. 34/2010 Foru Dekretuaren 48.3. artikuluan arautzen denarekin bat, onuradun gertatu den pertsona batek dirulaguntzari uko egiten badio, dirulaguntza ematen duen organoak erabaki dezake zerrendan hurrengo datozen eskatzaileei ematea (hurrenkaren puntuazioaren arabera), baldin eta nahikoa kreditu geratu bada aske kasuan kasuko eskabideei erantzuteko.

2. Dirulaguntza ematen duen organoak aukera horren berri emango die pertsona edo erakunde interesdunei, dirulaguntzaren proposamena onar dezaten, hamar (10) egun balioduneko epean; epe hori ezin da luzatu. Behin eskatzaileek proposamena onartuta, administrazio-organok dirulaguntza emateko egintza emango du, eta haren jakinarazpena egingo du.

3. Uko egitea aurkezteko gehienezko epea hamar (10) egun baliodunekoa izango da, interesdunari dirulaguntzaren proposamena jakinarazten zaionetik hasita. Epe hori igarota, hortik aurrera uko egiterik gertatzen bada, dirulaguntza emateko baldintzak ez direla bete joko da.

24. oinarria. — Dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea

1. Pertsona onuradunek, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino lehen, baimena eska diezaioke Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari, diruz lagundutako jardueraren ebazpenean aldaketak egin ahal izateko, hala nola, finkatutako epeak luzatzea, emandako zenbatekoa murriztea edo jarduera osatzen ekintzak aldatzea. Aldaketa horiek baimenduko dira ezohiko inguruabarrak daudenean edo jarduera ondo gauzatzeko beharrezkoak direnean, betiere dirulaguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada eta hirugarren pertsonen eskubideei kalte egiten ez bazaie. Aldaketa-eskaerak diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino hilabete (1) lehenago aurkeztu beharko dira gutxienez.

2. Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak ofizioz alda dezake dirulaguntza emateko ebazpena, onuradunari entzunaldia eman ondoren eta funtsak aplikatu aurretik; horretarako, bi baldintza hauek bete behar dira: batetik, laguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzen aldaketek ezin izango dute eragotzi edo oztopatu laguntzaren bidez lortu nahiz interes publikoa, eta, bestetik, ezingo zaio kalte ekonomikorik eragin onuradunari.

3. Dirulaguntzaren onuradunak, berak aurkeztutako justifikazioan, adierazten badu aldaketa batzuk egon direla dirulaguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzetan, di-



rulaguntza emateko ebazpena aldatzea ekar lezaketenak, eta aldaketa horiek guztiak onartzeko ez bada bete aurretik bete beharreko baimen administratiboko izapidea, orduan, dirulaguntza eman duen organoak onartu egin dezake aurkeztutako justifikazio hori, betiere onartze horrek ez badie kalterik eragiten hirugarrenen eskubideei; hala ere, horrek ez du salbuesten pertsona onuraduna 5/2005 Foru Arauaren arabera izan ditzakeen zehapenetatik.

25. oinarria. — Emandako dirulaguntzen publizitatea

1. Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20. artikuluan xedatutakoa beteko da. Horretarako, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean emandako dirulaguntzak argitaratuko dira artikulur horretan xedatutakoaren arabera. Halaber, dirulaguntza eman den urte naturala amaitu ondorengo lehen hiruhilekoa amaitu baino lehen, Ekonomia Sustatzeko Sailak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko ditu deialdi publiko honen ondorioetarako emandako dirulaguntzak, honako hauek adierazita: deialdia, aurrekontuko zer programari eta kredituri egozten zaizkion, onuradunaren izena edo sozietate-izena eta haren identifikazio fiskaleko zenbakia, emandako zenbatekoa, dirulaguntzaren helburua edo helburuak, eta diruz lagundutako programak edo proiektuak. Urte askotako dirulaguntzen kasuan, emandako zenbateko osoa eta urtekoen banaketa.

2. Hori guztia, hargatik eragotzi gabe organo eskudunek Bizkaiko Foru Aldundiaren gardentasun-atarian (Bizkaia Gardena) egiten dituzten argitalpenak, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua aplikatuz (aurrerantzean 1/2016 Foru Araua).

26. oinarria. — Onuradunak eman zaion dirulaguntzaren publizitatea egitea

Onuradunek diruz lagundutako jarduketaren finantzaketa publikoaren publizitatea egin beharko dute. Horretarako, lagundutako jarduketan zabalkunde publikorako egiten dituzten material, argitalpen eta ekitaldi guztietan, jasotako laguntza aipatu beharko dute eta Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipoa jarri beharko dute, erraz ikusteko leku batean.

27. oinarria. — Jakinarazpen elektronikoa

1. Erakunde interesdunei egindako jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira, 39/2015 Legean aurreikusitakoaren arabera.

2. Bitarteko elektronikoen bidezko jakinarazpenak Bizkaiko Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoa agertuz egingo dira (<https://www.ebizkaia.eus>) araudi bi hauetan ezarritakoaren arabera: Bizkaiko Foru Aldundiaren 62/2015 Foru Dekretua, maiatzaren 5koa, Administrazio Elektronikoa buruzkoa, eta Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuaren 4841/2016 Foru Agindua, ekainaren 6koa, jakinarazpenak eta komunikazioak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa agertzeko sistemaren bidez egiteari buruzkoa.

3. Egindako jakinarazpen elektronikoa eskuragarri jartzeari buruzko abisuak eskabidean aurkeztutako helbide elektronikora bidaliko dira. Horretarako, eskaera bete ondoren, ofizios eskumena duen organo edo unitateak alta emango dio helbide elektronikorako Bizkaiko Foru Aldundiaren prozeduren katalogoko dirulaguntzen prozedura honetarako aipatutako egoitza elektronikoa abisu-sisteman. Abisu horiek ez dute, inola ere, jakinarazpen-ondoriorik izango, eta horiek ez egoteak ez du eragotziko jakinarazpena guztiz baliozkotzat jotzea.

4. Jakinarazpenak egindakotzat joko dira edukira sartzerakoan. Jakinarazpena eskura jartzen denetik hamar egun natural igaro eta edukia eskuratzen ez bada, baztertu egin dela ulertuko da, eta jakinarazpenaren izapidea egintzat joko da.

**IV. TITULUA****GAUZATZEA, JUSTIFIKATZEA ETA KONTROLA****28. oinarria. — *Gauzatzeko epea***

1. Diruz lagundutako jarduerak edo proiektuak, 1. arloari dagozkionak, 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra bitartean hasi eta amaitu behar dira.
2. Diruz lagundutako jarduerak edo proiektuak, 2. arloari dagozkionak, 2023ko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra bitartean hasi eta amaitu behar dira.
3. Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak gauzatzeko epea luzatu ahal izango du, hurrengo apartatuetan adierazitakoaren arabera.
4. Onuradunak gauzatzeko epea luzatzeko eskatu ahal izango du, honako baldintza hauek betez gero:
 - a) Alegatutako arrazoia gertatu eta izandako edo izan daitekeen atzerapena egiaztatatu ahal izateko eskatu beharko da berehala, eta, nolana ere, gauzatzeko epea amaitu baino gutxienez hilabete bat (1) lehenago.
 - b) Gauzatzeko epea luzatzea eragin duen gerora sortutako arrazoia adierazi beharko da, ezin zaiona egotzi onuradunaren doloari, erruari edo zabarkeriari.
 - c) Ustekabeko kasua eta ezinbesteko kasua, halakorik gertatuz gero, kontuan hartuko dira eskatzen den luzapenari buruz ebazteko.
 - d) Eskabidearekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira: alegatutako arrazoia egiaztatzen duen dokumentazioa, izandako edo izan beharreko atzerapena egiaztatzen eta justifikatzen duen dokumentazioa, eta, ondorioz, eskatutako luzapen-epea.
 - e) Dirulaguntza kudeatzen duen zerbitzuak jasotako eskaria ulertzeko egokitzat jotzen duen bestelako dokumentazioa eskatu ahalko du.
 - f) Ez da baimenduko alegatutako eta egiaztatutako atzerapena baino gehiago, betiere luzapen horrek emandako dirulaguntzaren helburua betetzea ahalbidetzen badu eta hirugarrenen eskubideei kalterik egiten ez badie.
5. Eskatutako luzapena ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea hilabete (1) da eskaera bulego birtualean aurkezten denetik. Epe horretan berariazko ebazpenik jakinarazi ez bada, eskaera ezetsi egin dela ulertuko da.

29. oinarria. — *Justifikazio-epea*

1. Onuradunek organo instrukzio-egileari aurkeztu beharko diote, 2025eko otsailaren 28a baino lehen, ezarritako baldintzak bete direla eta dirulaguntza emateko egintzan aurreikusitako helburuak lortu direla egiaztatzen duen agiria, oinarri hauetan ezarritako moduan.
2. Egikaritze epea luzatzea onartu bada, organo izapidegileari azken justifikazioa aurkezteko hilabete bateko epea izango da. Epe hori zenbatzen hasiko da epea luzatzeko emakida ebazpenean hura egiteko ezarritako epea bukatzen denean.
3. Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak azken justifikazioa aurkezteko ezarritako epea luzatu ahal izango du, gehienez ere haren erdia, betiere alegatutako inguruabarrek hala gomendatzen badute eta horrekin hirugarrenen eskubideei kalterik egiten ez bazaie. Eskaera eta luzapenari buruzko erabakia justifikazio-epea amaitu baino lehen egin beharko dira. Alegatutako arrazoia gertatu eta berehala eskatu beharko da, eta, nolana ere, justifikazio-epea amaitu baino gutxienez hilabete (1) lehenago, hau da, 2025eko otsailaren 1a baino lehen. Berariazko ebazpenik jakinarazten ez bada, eskaera ezetsi egin dela ulertuko da.
3. Justifikazioa egiteko epea igaro eta dagokion instrukzio-organoren aurrean ez bada aurkeztu justifikaziorik, organo horrek errekerimendua egingo dio erakunde onuradunari, hamabost (15) egun baliodunen epean aurkez dezan, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori ezingo da luzatu. Justifikazioa ez bada ezarritako epean aurkezten, dirulaguntza itzultzea eskatuko zaio onuradunari eta, gainera, Dirula-



guntzen Foru Arauaren 37. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen diren gainerako erantzukizunak eskatuko zaizkio.

30. oinarria. — Azpikontratazioaren baldintzak

1. Honako hau joko da azpikontrataziotzat: onuradunak hirugarren pertsona batekin hitzartzen duenean dirulaguntzaren xedeko jarduera oso-osorik edo zati bat egitea. Azpikontratazioaren kontzeptu horretatik kanpo gelditzen da onuradunak diruz lagundutako jarduera bere kabuz gauzatzeko egin behar dituen gastuen kontratazioa. Aurrekoaren ondorioz, honako hauek ez dira azpikontrataziotzat joko: dirulaguntzaren xedeko jardueraren barruko zeregin bereziak egiteko kanpoko zerbitzuen kontratazioa eta dirulaguntzaren xedeko jardueraren bestelako gastu osagarriak.

2. Onuradunak diruz lagundutako jarduera azpikontratatu ahal izango du, diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren ehuneko 100 arte. Azpikontratazio-ehuneko hori egindako azpikontratu guztien baturaren arabera kalkulatzen da.

3. Inola ere ezingo dira azpikontratatu diruz lagundutako jardueraren kostua handitu arren jarduera horri balio erantsirik ez dakarkioten jarduerak.

4. Onuradunak ezin izango du inola ere hitzartu diruz lagundutako jarduerak osorik edo partez egitea 5/2005 Foru Arauaren 27.7. artikuluan zehaztutako pertsona edo erakundeekin.

5. Dirulaguntzaren xedea gauzatzea agintzen zaien erakundeek genero-berdintasunaren arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitako printzipio orokorrak eta betebeharrak errespetatu beharko dituzte.

6. Dena dela, azpikontratazioaren zenbatekoa handiagoa bada 9/2017 Legean kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak baino, hau da, 15.000 euro edo gehiago hornidura eta zerbitzuen kasuan, onuradunak, gutxienez, hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta, gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ez bada nahikoa erakunderik halakorik hornitu edo eskaintzen duenik, edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin bada.

7. Aurkeztutako eskaintzak justifikazioan jaso beharko dira edo, hala badagokio, dirulaguntza eskaeran, eta haien artean aukeratzeko, eraginkortasun eta ekonomia irizpideak hartuko dira kontuan, eta, proposamen ekonomiko onuragarriena aukeratzeko ez denean, aukeraketa memoria batean justifikatu beharko da espresuki.

8. Beste batzuekin hitzarturiko jarduera hori dirulaguntzaren zenbatekoaren % 20tik gorakoa bada, eta zenbateko hori 60.000,00 euro baino handiagoa bada, azpikontratazioak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Kontratua idatziz egin beharko da.
- b) Kontratua egin aurretik dirulaguntza eman duen erakundeak baimena eman beharko du, oinarri arautzaile hauetan ezarri den bezala.

9. Eskabideak proposatutako azpikontratazioaren baldintza nagusiak adierazi beharko ditu, eta Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak ebatziko du, bulego birtualean aurkezten denetik 15 egun balioduneko epean. Epe hori amaitzean ebazpen espresua jakinarazten ez bada, administrazio-isiltasunez ezetsi dela ulertuko da.

31. oinarria. — Dirulaguntzak justifikatzea

1. Justifikazio-kontu baten bitartez frogatuko du onuradunak betetzen dituela ezarritako baldintzak eta lortu direla dirulaguntza emateko egintzan aurreikusitako helburuak.

2. Dirulaguntza eskabidea Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez izapidetu behar da.

3. 1. arloan, justifikazio-kontuan informazio hau jaso behar da:

- a) Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualak sortutako justifikazio telematikoa. Justifikazio horrek dirulaguntza jaso duen jardueraren gastuen zerrenda izan behar du eta hartzekoduna, agiria, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala de-



- nean, ordainketaren data identifikatu behar dira. Halaber, hedapen, gardentasun, hizkuntza koofizialen erabilera, genero berdintasun eta bestelako gizarte politika betebeharrak betetzen direnaren deklarazioa du.
- b) Justifikazio memoria webguneko ereduaren arabera. Bertan jasoko dira dirulaguntza jaso duen proiektuari edo jarduerari egotzitako diru-sarreraren zerrenda eta hasierako aurrekontuarekin alderatuta gastuetan izandako desbideratzeak, hala badagokio.
 - c) Egiaztaketarako fakturak edo dokumentu baliokideak merkataritza trafiko juridikoan edo administrazio eraginkortasuna dutenak.
 - d) Fakturak ordaindu izanaren bankuko ziurtagiriak.
 - e) Hala dagokionean, jarduera hasi aurreko komunikazioaren kopia, obrak hasi aurreko komunikazioaren kopia edo, halakorik badago, obra-lizentziaren kopia.
 - f) Hala dagokionean, alokairu-kontratua.
 - g) Hala dagokionean, ikastarora joan izanaren ziurtagiria, edo baliokidea.
 - h) Hala dagokionean, kanpo-aholkulariarekin egindako azterketa.
 - i) Hala dagokionean, sustapen-komertzialeko jarduketan sortutako materiala.
 - j) Hala badagokio, hiru eskaintzak edo «azpikontratatzeko baldintzak» 30. oinarrian aipatutako ordezeko dokumentazioa, zehazki, 5/2005 Foru Aruaren 29.3. artikulua aplikatuz, onuradunak eskatu behar izan duena.
 - k) Aurkezpena, beren beregi emakida ebazpenean eskatzen dena.
4. 2. arloan, justifikazio-kontuan informazio hau jaso behar da:
- a) Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualak sortutako justifikazio telematikoa. Justifikazio horrek dirulaguntza jaso duen jardueraren gastuen zerrenda izan behar du eta hartzekoduna, agiria, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala de-nean, ordainketaren data identifikatu behar dira. Halaber, hedapen, gardentasun, hizkuntza koofizialen erabilera, genero berdintasun eta bestelako gizarte politika betebeharrak betetzen direnaren deklarazioa du.
 - b) Justifikazio memoria webguneko ereduaren arabera. Bertan jasoko dira dirulaguntza jaso duen proiektuari edo jarduerari egotzitako diru-sarreraren zerrenda eta hasierako aurrekontuarekin alderatuta gastuetan izandako desbideratzeak, hala badagokio.
 - c) Egiaztaketarako fakturak edo dokumentu baliokideak merkataritza trafiko juridikoan edo administrazio eraginkortasuna dutenak.
 - d) Fakturak ordaindu izanaren bankuko ziurtagiriak.
 - e) Laguntzak jaso badira langileen barneko gastuen kontzeptuan, justifikazioa aurkeztu aurreko bi hilabeteetako baten Langileen Izendapen Zerrenda. Erakunde-ari lotutako langile autonomoak badira, ordainketako azken bankuko ziurtagiria (autonomoen buletina) eta kotizazio oinarrien txostena, justifikazioa aurkeztu aurreko bi hilabeteetako baten kotizazioa duena. Lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileak diren eta Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean sartuta ez dauden pertsonen kasuan, dokumentazio parekagarria.
 - f) Hala dagokionean, kurtsoan onartutako eta baztertutako artisautza-erakundeen zerrenda arrazoitua.
 - g) Hala dagokionean, azokan onartutako eta baztertutako artisautza-erakundeen zerrenda arrazoitua eta azokan parte hartu arren Bizkaiko Artisautza-Erakunde-
deen Erregistroan sartuta ez daudenen dagokion erregistroan izena eman izana-
ren egiaztagiria.
 - h) Hala dagokionean, artisautza ezagutzera eman eta sustatzeko jardueraren on-
doriozko materiala.
 - i) Hala dagokionean, egindako azterlanak.



- j) Hala badagokio, hiru eskaintzak edo «azpikontratatzeko baldintzak» 30. oinarrian aipatutako ordezeko dokumentazioa, zehazki, 5/2005 Foru Arauaren 29.3. artikulua aplikatuz, onuradunak eskatu behar izan duena.
5. 1. arloaren kasuan, justifikatzeko unean ikusten bada 4. oinarrian jasotako diruz lagundu daitekeen jarduketako batean justifikatutako zenbatekoa txikiagoa dela esleitutako zenbatekoa baino, beste jarduketetan goranzko desbideratzeen bidez konpentsatu ahal izango da baldintza hauetan:
- Konpentsatutako gastuak mota berekoak izan behar dira: « ekipamendurako gastuak » edo « beste gastu batzuk ».
 - Kontuan hartu beharreko goranzko desbideratzeek hasiera batean esleitutako zenbatekoen %20ko muga izango dute, kategoria bakoitzeko ezarritako gehieneko zenbatekoa errespetatuz.

32. oinarria. – Dirulaguntza ordaintzea

- Ekonomia Sustatzeko Sailak zuzenean ordainduko dizkio dirulaguntzak onuradun bakoitzari, honela:
 - Onartutako zenbatekoaren %75 eta %100 artean laguntza ematen den unean, inolako bermerik eskatu gabe, eta dirulaguntzari datxezkion jarduerak gauzatu ahal izateko beharrezko finantzaketa gisa. Lehen ordainketa egiteko aplikatu beharreko laguntzaren ehuneko espediente bakoitzaren esleipenaren unean zehaztuko da, aurrekontu-baliabideen eta pertsona juridiko motaren arabera.
 - Hala dagokionean, gainerako ehuneko, 2025ean, 31. oinarrian jasotako azken justifikazioaren dokumentazioa aurkeztu eta gero.
- Dirulaguntza ordaindu baino lehenago, onuradunek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituztela egiaztatuko da, eta ez daudela dirua itzultzera behartzen duen ebazpen prozedura baten ondorioz zordunen artean. Egiaztapen horren ondorioz, ikusten bada onuradunak ez dituela egunean zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, edo itzultzeko ebazpen baten ondorioz zorduna bada, ezin izango da dirulaguntza ordaindu.
- Emandako dirulaguntza ordaintzeko, banku-transferentzia egingo da dirulaguntzaren eskabidean adierazitako banku-kontura.
- Dirulaguntza kobratzeko eskubideak ezin dira laga, 34/2010 Foru Dekretuaren 68.1 artikuluan jasotako kasua gertatzen ez bada eta dirulaguntza kobratzeko eskubiak pignoratzea baimentzen ez bada.

33. oinarria. – Laguntzak metatzea

- Foru-dekretu honetan jasotako dirulaguntzek honako erregelamendu honetan xedaturikoa bete behar dute: Batzordearen 2023/2831 (EB) Erregelamendua, 2023ko abenduaren 13koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa.
- Ematen diren dirulaguntzak de minimis laguntzat hartuko dira. Emandakotzat joko dira onuradunari dirulaguntza jasotzeko eskubide legala aitortzen zaion unean.
- Pertsona onuradun batek jaso dezakeen de minimis laguntzen zenbateko osoa ezin da izan 300.000,00 eurotik gorakoa izan, hiru urteko edozein alditan.
- Ez bada betetzen Batzordearen 2023/2831 (EB) Erregelamendua, 2023ko abenduaren 18koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa, horrek berekin ekar liezazkioke arau-hausleari erantzukizun penala, zibila eta administratiboa.
- Foru-dekretu honen arabera emandako laguntzak beste de minimis laguntza batzuekin metatu ahal izango dira, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzko 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 Erregelamenduan (EB) ezarritako gehieneko mugaraino. Laguntza horiek ez dira Estatuko ezein laguntzarekin metatuko, diruz lagun daitezkeen



gastu berei dagokienez, baldin eta metatze horrek gainditu egiten baditu Batzordeak onarturiko kategorien arabera salbuespen-erregelamendu batek edo erabaki batek kasuan kasurako finkaturiko inguruabar zehatzetarako laguntza-intentsitatea edo gehieneko laguntzaren zenbatekoa.

34. oinarria. — Laguntzen bateragarritasuna

1. Foru-dekretu honen babesean emandako dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazioari edo erakunde publikoari zein pribatuari ematen dituzten dirulaguntza, oinarri honetan eta laguntzen metaketari buruzko aurreko oinarrian finkatutako mugak bakarrik.

2. Hala ere, ez dira bateragarriak izango Bizkaiko Foru Aldundiak helburu bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin.

3. Dirulaguntzen zenbatekoak, bera bakarrik edo beste dirulaguntza nahiz laguntzekin batera, ezin izango du, inola ere, onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua gainditu.

4. Aurreko muga horietakoren bat gaindituz gero, emandako edo eman beharreko dirulaguntzari soberakinari dagokion kopurua kenduko zaio.

5. Onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu dituztela jakinarazi beharko diote Ekonomia Sustatzeko Sailari, horren berri izan bezain laster eta, nolatan ere, funtsei emandako erabilera justifikatu baino lehen, eta, hala badagokio, egindako itzulketa-gutunaren kopia erantsita. Hori guztia 5/2005 Foru Arauaren 18. artikulua 3. eta 4. ataletan aurreikusitako ondorioetarako, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izateko eta, hala badagokio, itzulketa-prozedura hasteko.

5. Ekonomia Sustatzeko Saila harremanetan jarri ahal izango da gainerako finantzataileekin, kofinantzaketa-hitzarmen bat egin ahal izateko.

35. oinarria. — Erakunde onuradunen beste betebeharrak

Honako betebeharrak hauek izango dituzte laguntzen onuradunek:

- a) Dirulaguntza emateko arrazoi den helburu, proiektu, jarduera edo jokaera lortu, burutu, egin edo hartzea.
- b) Ekonomia Sustatzeko foru diputatuaren aurrean edo erakunde laguntzailearen aurrean justifikatzea betekizun eta baldintzak betetzen direla, hala badagokio, baita jarduera egin dela eta dirulaguntza emateko edo laguntzaz gozatu ahal izateko aintzat hartutako xedea bete dela ere.
- c) Oinarri hauetan jasotako hedapen-neurriak hartzea, hau da, «Onuradunak eman zaion dirulaguntzaren publikitatea egitea» izeneko oinarrian adierazitakoa betetzea.
- d) Aurrekontu ekitaldi batean Bizkaiko Foru Aldunditik gutxienez 100.000 eurokoak diren laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituzten erakunde pribatuak edo urteko diru-sarreraren %40 foru laguntzak edo dirulaguntza publikoak direnean, baldin eta gutxienez 5.000 eurokoak badira, bete egin beharko dituzte 1/2016 Foru Arauko publikitate aktiboaren betebeharrak. Hau da:
 - 1) Aurretik aipatutako mugak gainditu eta hurrengo urtetik aurrera webgunean informazio publiko garrantzitsua argitaratzea modu irisgarrian, doan, egiaz, eguneratuta eta berrerabiltzeko moduan. Datu pertsonalak babestearen arloko legeria errespetatuko da eta euskaldunen hizkuntza eskubideak bermatuko dira. Horretarako, informazioa euskaraz eta gaztelaniaz argitaratuko da.
 - 2) Informazioa eguneratuta mantentzea gutxienez lau urte naturaletan.
- e) Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza koofizialak erabiltzea hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuaren 13.3. eta 13.4. artikuluetan ezarritakoarekin bat. Hau da:
 - 1) Diruz lagundutako jarduera publiko guztietan bi hizkuntza koofizialak erabiltzea.



- 2) Diruz lagundutako jarduerarekin lotutako materialetan, argitalpenetan eta bestelako euskarrietan bi hizkuntza koofizialak erabiltzea.
- f) Genero ikuspegia sartzea eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Legearen 46. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Horrek haxe esan nahi du:
- 1) Egiaztatzea jarduketetan bete egiten direla 4/2005 Legearen 3. artikuluan adierazitako printzipio orokorrak, egindako azterketa eta estatistiketan lege horren 16. artikuluan xedatutakoa betetzen dela eta zuzenean edo hirugarrenen bidez sortutako hizkuntza, irudi, euskarri eta dokumentuetan hizkuntza sexista erabiltzen ez dela egiaztatzea.
 - 2) Egiaztatzea emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea lanpostuen definizio, sarbide, kontratazio eta iraungipenean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasun eta osasunean, ordainsari-politikan, erantzunkidetasunean, bizitza pertsonal, lan-bizitza eta familia-bizitza uztartzearen arloan, lanaren kalitate eta egonkortasunean, lanaldiaren iraupen eta antolamenduan, ekintza sindikal, ordezkaritza eta negoziazio kolektiboan, betiere diskriminaziorik sortzen ez duten lan-baldintza duin eta gizalegezkoak sustatzen direla eta gardentasun eta ordainsari berdintasun printzipioa betetzen dela.
 - 3) Egiaztatzea zaintzea emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izan daitezen, eta berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, eta generoaren rol eta identitateen aniztasuna balio dituen irudi bat sustatzea idatzizko zein ahozko komunikazioetan, ikonografian, publizitate-ekintzetan, barruko zein kanpoko komunikazio formal eta informalean, eta proiektuari edo jarduerari lotutako edo proiektua edo jarduera egiteko sortutako materialetan.
 - 4) Egiaztatzea bermatzen dela neurriak hartuko dituela lan-arloan emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko, hari aurre egiteko, haren jarraipena egiteko, hura ebaluatzeko eta desagerrarazteko, bereziki sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko.
- g) Kontabilitate liburuak, erregistroak eta gainerako agiriak egunean edukitzea —egin beharreko eginbide eta auditoriak eginda, alegia—, pertsona onuradunari kasu bakoitzean aplikatu beharreko merkataritza-legerian eta legeria sektorialean ezarritakoaren arabera, eta kontabilitate orri eta erregistro espezifiko guztiak edukitzea, egiaztapen eta kontrol ahalmenen erabilera egokia bermatzeko.
- h) Jasotako funtsen erabilera frogatzen duten agiriak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol ekintzetarako erabilgarriak izan daitezkeen neurrian.
- i) Foru arau honen 33. artikuluan jasotako egoeretan jasotako funtsak itzultzea.
- j) Baldin eta dirulaguntza emateko orduan kontuan hartu diren inguruabar objektibo edo subjektiboetatik edozein aldatu bada, aldaketa horren berri ematea dirulaguntza eman dionari.
- k) Foru Administrazioako organoek edo erakunde laguntzaileak eskatzen dieten laguntza eta dokumentazioa ematea, bai eta, Europar Batasuneko araudiaren arabera, finantza-kontrolako eginkizunak esleituta dituzten organoek ere. Horretarako, honako ahalmen hauek izango dituzte:
- 1) Egiaztatu beharreko agiriatar, euskarri informatikoan dauden programa eta artxiboak barne, iristeko askatasuna.
 - 2) Sarrera librea diruz lagundutako jarduera garatzen den edo dirulaguntzaren kargura finantzatutako eragiketen errealitatea eta erregularitasuna egiaztatzeke aukera ematen duten negozio-lokaletara eta gainerako establezimendu edo lekuetara.



- 3) Fakturak, agiri baliokideak edo ordezkoak eta eragiketei buruzko beste edozein agiri atxikitzea edo kopia eskuratzea, baldin eta horietan dirulaguntza behar ez bezala lortu, baliatu edo erabili izanaren zantzuak ondorioztatzen badira.
- 4) Dirulaguntzak kobratu diren edo funtsak erabili diren finantza-erakundeetako banku-kontuetako informazioa eskuratzeko askatasuna.

Laguntza emateko eta dokumentazioa emateko betebeharrak hori betetzeari uko egitea erresistentziatzat, desenkusatzat, oztopotzat edo negatibotzat joko da, 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, hala bada-gokio, zehapenen kalterik gabe.

- l) Emakumeen eta gizonen arteko genero berdintasunarekin lotutako betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko jarduketak egitea eta justifikazio dokumentazioa ematea. Laguntzen ez bada eta dokumentazioa ematen ez bada, urratu egingo dira 5/2005 Foru Arauaren 33.1.f) artikuluan adierazitakoaren ondorioetarako ezarritako betebeharrak.
- m) Deslokalizazioan ez erortzea. Enpresa deslokalizaziotzat jotzen da Enpresak deslokalizatzen direnean foru-sektore publikoak laguntzak berreskuratzeari buruzko martxoaren 27ko 7/2007 Foru Arauak ezarritakoa, eta foru-dekretu honek arautzen dituen dirulaguntzei aplikatuko zaie foru-arau hori.